

**Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Sal6n de Plenos****Bildutakoak: / Asistentes:**

Alkatea / La Alcaldesa Maider Lainez Lazcoz

Zinegotziak: / Concejales/as:

EH-Bildu

Andoni Alvarez Lete
Estibalitz Mujika Tolaretxipi
Jon Zulueta Berastegi
Garazi Usandizaga Zubiria
Julian L6pez Aracama
M^a Teresa Etxeberria Arteun
Xabier Fond6n Pajares

PSE-EE

Jos6 Luis Verdasco Gutierrez
Ascensi6n Parr6n Peguero
Oscar Mendo Gonz6lez

EAJ-PNV

Maria Jose Izagirre Iturzaeta
Mikel Arregi Aranburu
M^a Sagrario Ruiz Fern6ndez
Imanol Goenaga Egibar

Elkarrekin Podemos M^a Teresa Santana Rubio

Akta Zenbakia	00000003
Eguna	2021/02/25
Hasiera	19:00
Amaiera	19:35

Idazkaria:

María Uriarte Zuricaray

KontuhartzaileaMyriam Lizaso
Arruabarrena**Interpretaria**

Jon Unanue Lopez

Ez da bertaratu eta adierazi dute: / No asiste y se excusa:

Petra Romero Pozo, PSE-EE udal taldeko zinegotzi andreak, bere bozka Jos6 Luis Verdasco Guti6rrez jaunarengan, PSE-EE udal taldeko eleduna, eskuordetu du 2021.02.24 datarekin.

Gai Zerrenda:

- 2021/01/22an egindako batzarraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Xedapenak

- 2020.12.31 datako Kontuhartzaileak emandako txostenaren berri ematea.
- 2020ko fakturak onartzea.
- Andoingo udaleko langileei lansariak igotzeari buruzko proposamena, Estatuko 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legean oinarritua.
- Sociedad Financiera y Minera sozietatearen titulartasuneko meatze-kuadrikulen barruan dagoen BURUNTZA 2.009.2 zenbakiko onura publikoko mendiaren udal-titularitasuneko lursailen kareharrizko aprobetxamenduaren esleipena.
- Bide publikoan terrazak eta mahaiak jartzeko ordenantza arautzailea hasierako izaeraz

Orden del D6a:

- Lectura y aprobaci6n, si procede, del borrador del acta de la sesi6n celebrada el 22/01/2021.

Parte Dispositiva

- Dar cuenta del informe de la Interventora a fecha 31.12.2020.
- Aprobaci6n facturas 2020.
- Propuesta de incremento retributivo al personal del Ayuntamiento, en base a lo establecido en la Ley 11/2020, de 30 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el a6o 2021.
- Adjudicaci6n del aprovechamiento de piedra caliza en terrenos de titularidad municipal del monte de utilidad p6blica 2.009.2 Buruntza situado dentro de las cuadr6culas mineras de titularidad de Sociedad Financiera y Minera.
- Aprobaci6n, con car6cter inicial, de la Ordenanza reguladora de la instalaci6n en la



- | | | | | | |
|--|--|--|--|--|---|
| onartzea. | | | | | vía pública de terrazas y veladores. |
| 7. Andoainen bidaiarien hiri garraio zerbitzuaren esleipen-prezioa osatzeko proposamena. | | | | | 7.- Propuesta de complementar el precio de adjudicación del servicio de transporte urbano de viajeros en Andoain. |
| 8. 151/2021 zk.ko Alkatetzako Ebazpena berrestea. | | | | | 8.- Ratificación de la Resolución de Alcaldía nº 151/2021. |
| 9. 191/2021 zk.ko Alkatetzako Ebazpena berrestea. | | | | | 9.- Ratificación de la Resolución de Alcaldía nº 191/2021. |
| 10. 231/2021 zk.ko Alkatetzako Ebazpena berrestea. | | | | | 10.-Ratificación de la Resolución de Alcaldía nº 231/2021. |
| 11. 153/2021 zk.ko Alkatetzako Ebazpenaren berri ematea. | | | | | 11.-Dar cuenta de la Resolución de Alcaldía nº 153/2021. |
| 12. Hurria-Saharak aurkeztutako adierazpena. | | | | | 12.-Declaración presentada por Hurria-Sahara. |
| 13. Martxoaren 8ko adierazpen instituzionala. | | | | | 13.-Declaración institucional del 8 de marzo. |

Kontrola

14. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Parte de Control

- 14.-Ruegos, preguntas y propuestas.

Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.

Alkate andreak hitza hartu du eta honakoa esan du:

“Arratsalde on guztioi eta ongi etorriak 2021eko otsailaren 25eko udalbatzarra honetara.

“Buenas tardes a todas y todos y bienvenidas al pleno del 25 de febrero de 2021.

“Ikusiko dezue, Romero andrea falta da, gaixorik dagoelako eta bere bozka Verdasco jaunarengan eskuordetu du.

“Decía que, como verán falta la Sra. Romero que está enferma y ha delegado su voto en el Sr. Velasco.

“Eta gero, beste zinegotziok, azken hilabetetan egiten ari garen bezala, publikoaren aulkietan eserita daude.

“Decía que, el resto de concejales están sentados en los bancos del salón de plenos.”

1. 2021/01/22an egindako bileraren akta irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Zinegotzietan bidali zaien 2021/01/22 datako batzarraldiari dagokion akta irakurri ondoren, Alkateak honen onarpena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, ontzat eman du.

2. 2020.12.31 datako Kontuhartzaileak emandako txostenaren berri ematea.

Alkate andreak, hitza hartu du eta honakoa esan du:

“Dakizue bezala, puntu hau ekartzen dugu hiruhilabetero bozkatzera eta legeak dioen bezala hiru hilabete behin esan behar dugu zenbateko faktura ordaindu gabe dagoen. “Como marca la ley trimestralmente tenemos que dar a conocer las facturas que el ayuntamiento todavía no ha pagado.

“Kasu honetan izango lirake 1.409.731 euro eta, batez ere, aipatu gero eta gehiago murrizten ari garela epeak eta alde horretatik, eskertzea eta zoriontzia tekniko guztiak eta batez ere Ogasun sailekoak.

“Decía que la cifra es de 1.409.731 euros y estamos reduciendo bastante el período de pago de las



facturas y en ese sentido felicitar a todas y todos los técnicos del ayuntamiento porque están tratando de que las facturas se gestionen en el menor tiempo posible y especialmente a los del departamento de Hacienda y Economía.”

Kontuhartzaileak 2021eko otsailaren 10ean egindako txostenaren berri ematen da eta Osoko Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

3. 2020ko fakturak onartzea.

Alkate andreak, hitza hartu du eta honakoa esan du:

“2021eko otsailaren 17an Ogasun batzordean ikusi zen bezala kredituak judiziok kanpo aitortzeko espediente egokia izapideari ekitea, aurreko ekitaldiko gastuak aurtengo aurrekontura egotzi daitezten. Kopurua izango litzateke 569.453,40 eurokoa.”

“Visto el dictamen favorable de la comisión informativa de Economía y Hacienda del 17 de febrero se procede a la instrucción del oportuno expediente de reconocimiento extrajudicial de créditos para la imputación al presupuesto corriente de los gastos llevados a cabo en el ejercicio anterior, cuyo importe sería de 569.453,40 euros.”

Kontuan hartuz, oro har badakigula sektore publikoa osatzen duten administrazio desberdinen artean, tokiko administrazioa dela herritarrengandik gertuen dagoena eta, hortaz, administrazio honetara zuzentzen dituztela, lehenik eta behin, beren eskaerak.

Kontuan hartuz, Tokiko Administrazioak herritarrek eskatzen duten arintasunera eta eraginkortasunera egokitu behar duela bere jarduna. Horregatik, zenbaitetan, eta herritarrei erantzuteko, jarduera administratiboa ez da doitzen, zorrotz-zorrotz, berez zurruna den prozedura legalera.

Kontuan hartuz, zentzu horretan, aurreko ekitaldian, zenbaitetan ondasunen hornidurari eta zerbitzuen prestazioari dagozkien gastuak egin direla, guztiak udal zerbitzu desberdinen garapen arrunterako eta Udalak kudeatutako zerbitzuen prestaziorako behar-beharrezkoak eta ezinbestekoak.

Kontuan hartuz, aurrekontu-kreditu nahikorik gabe gauzatu badira ere, Udala aipatu gastuak ordaintzera behartuta dagoela, horiek udal aurrekontura egotzi ondoren. Legegileak berak, ezinbesteko zerbitzuak emateko beharrezkoak diren baina nolabait ere “irregularrak” diren jarduera horiek ematen direla jakinik, aipatu gastuak dagokion ekitaldiko aurrekontura egotzeko aukera aurreikusten du. Egozpen hori, hasiera batean, debekatuta dago, aurrekontuaren urtekotasunaren printzipioari jarraiki, baina kredituen judizioz kanpoko aitorten espedientearen bidez izapidetzea ahalbidetzen da.

Kontuan izanik, administrazioarekiko kontratatzaileak diren hirugarrenak kaltetzea saihesteko eta, hortaz, administrazioaren aberaste bidegabe edo arrazoigabea saihesteko, ezinbestekoa eta derrigorrezkoa dela egindako gastu horiek ordaintzea; kontuan izanik, halaber, gastuak egungo ekitaldira egozteak, aurrekontu burutzapenaren egungo egoera ikusirik, ez duela eragingo kalterik aurtengo ekitaldiko beharrei erantzuteari dagokionez; kontuan izanik hirugarren hartzekodun horiek eman dituztela benetan zerbitzuak, edo hornitu dituztela ondasunak, eta badagoela gastu horien guztien faktura bana, gastua kudeatu duten organo desberdinetako arduradunek onetsitako fakturak alegia.

Kontuhartzaileak (2021/01 erref.) 2021.02.12an egindako txostena ikusi ondoren

Ikusirik, Ekonomia eta Ogasuna Batzorde Informatzaileak 2021/02/17ko bileran emandako aldeko irizpena.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Kredituak judizioz kanpo aitortzeko espediente egokia izapidetzeko ekitea, aurreko ekitaldiko gastuak, bere egunean aurrekontu-hornidurarik ez zegoelako egotzi ez ziren gastuak alegia, aurtengo aurrekontura egotzi daitezten. Hori guztia txostenaren eranskinean azaltzen den zerrenda arabera, guztira 569.453,40 eurokoa da.



4. Andoingo udaleko langileei lansariak igotzeari buruzko proposamena, Estatuko 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legean oinarritua.

Verdasco jaunak, Langileriako Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on. Buenas tardes. Como establece la Ley de Presupuestos Generales del Estado para el 2021 un incremento retributivo de hasta 0,9% que traemos a consideración del Pleno, para aplicar ese incremento retributivo con efecto retroactivo del 1 de enero de 2021.”

Ikusi ondoren Estatuko 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legean ezarritakoa, non arautzen diren III. Tituluko I. Kapituluak, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuak eta konkretuki 18. artikuluan, 2021eko ekitaldirako ordainsari-igoeren mugei heltzen die, non adierazten baita 2021ean alor publikoaren zerbitzuan dauden langileen lansariak ezingo dutela izan igoerarik osotara ehuneko 0,9 gaunditzen dituenik 2020ko abenduaren 31ean indarrean zeudenak, beti ere alderatzen diren bi aldien artean homogeneotasuna bermatze aldera, bai langilegoa osatzen dutenen kopuruari dagokionez nola baita langile horien antzinatea sarien kopuruari dagokionez ere.

Ikusirik 2021eko otsailaren 5ean Langileria eta Prebentzioko Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako aldeko txostena.

Ikusi ondoren udal kontuhartzaileak egindako txostena, 2021-02-09koa.

Ikusirik, Langilegoa, Antolakuntza eta Barne Araugintza Batzordeak 2021eko otsailaren 16ko bileran emandako aldeko irizpena.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andreak eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1. Onartzea, 2021-01-01eko ondorioekin, Udal honetako langileen lansariak %0,09a igotzea, beti ere 2020ko abenduaren 31ean indarrean zeuden lansariei buruz, eta alderatzen diren bi aldien artean homogeneotasuna bermatze aldera, bai langilegoa osatzen dutenen kopuruari dagokionez nola baita langile horien antzinatea sarien kopuruari dagokionez ere; hori guztiori, Estatuko 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legean jasotako ahalbidearekin bat etorritz.

2.- Erabaki hau argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

3.- Erabaki honen berri ematea EUDEL, Euskal Herriko Udalen Elkarteari, sindikatuen ordezkariari eta Kontuhartzailetza, Diruzaintza eta Langileria lansailei.

5. Sociedad Financiera y Minera sozietatearen titulartasuneko meatze-kuadrikulen barruan dagoen BURUNTZA 2.009.2 zenbakiko onura publikoko mendiaren udal-titulartasuneko lursailen kareharrizko aprobeixamenduaren esleipena.

Verdasco jaunak, Hirigintzako Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Teniendo en cuenta que la única empresa que podía acceder a este contrato era la Sociedad Financiera y Minera, que, a su vez, es la titular de la explotación minera, considerando que ha aceptado las condiciones recogidas en el pliego y ha remitido la documentación correspondiente donde acredita la capacidad y solvencia requerida, sometemos a consideración del Pleno la adjudicación del contrato para el aprovechamiento de la piedra caliza de los terrenos de titularidad municipal del monte de utilidad pública nº 2.009.2 Buruntza a la Sociedad Financiera y Minera, S.A. La duración de la concesión será por un período de 10 años, comprendidos desde el 1 de enero de 2021 al 31 de diciembre de 2030.”

Jarrian, Idazkari andreak, hartu du hitza, honakoa esateko: “Oraindik ez dute aurkeztu fidantza, kudeatzen ari dira, zeren, Alemaniatik oniritzia eman behar diote eta kontratua sinatu aurretik aurkeztuko dute, 20 egun dituzte eta horretara baldintzatuta geratzen da.”

Ikusirik, Udal Osoko Bilkurak 2020ko azaroaren 25an eta 3. zenbakiarekin onartu zuela Klausula Administratibo Berezien Agiria, Sociedad Financiera y Minera sozietatearen titulartasuneko meatze-kuadrikulen barruan dagoen “BURUNTZA 2.009.2” zenbakiko onura publikoko mendiaren udal-titulartasuneko lursailen kareharrizko aprobeixamendua gauzatzeko kontratuaren esleipena arautzeko.



Kontratuaren esleipena prozedura negoziatu bitartez egiteko onartu zuen Osoko Udalbatzak.

Kontuan hartuta, prozedura hori, espedientean agerian den moduan, SOCIEDAD FINANCIERA Y MINERA SA enpresarekin bakarrik dagoela aukera burutzeko.

Kontuan hartuta, esandako enpresak negoziazioa amaitu duela eta baldintza-plegua bere osotasunean onartu egin duela eta ahalmena eta kaudimena kreditatzeko beharrezkoa den dokumentazioa bidali ere, Hirigintzako eta Zerbitzuetako administrazio orokorreko teknikariak jakinarazi duenez.

Ikusirik, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune Batzorde Irizpenemaileak 2020ko azaroaren 19ko bileran emandako irizpena.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta, Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1. Sociedad Financiera y Minera sozietatearen titulartasuneko meatze-kuadrikulen barruan dagoen Buruntza 2.009.2 zenbakiko onura publikoko mendiaren udal-titulartasuneko lursailen kareharrizko aprobetxamendua esleitzea Sociedad Financiera y Minera SA enpresari baldintza pleguak ezarritako moduan.

Kontratua sinatzeko aurreikusitako epean eta betiere kontratua sinatu aurretik, 2021eko otsailaren 11 datako errekerimenduan eskatutako behin betiko bermea aurkeztu beharko du, 25.805 zenbatekoa dena.

2. Urteko kanona 0,5161 eurokoa izango da, ateratako harri gordinaren m³ bakoitzeko. Nolanahi ere, esleipendunak Andoingo Udalarari ordaindu beharreko urteko gutxieneko kanona 25.805,00 eurokoa izango da, hau da, urteko gutxieneko ustiapen-bolumena 50.000 m³-koa izango da harri gordinen, 0,5161 eurokoa m³-ko.

Urteko gutxieneko kanonaren zenbatekoa urte bakoitzeko abenduan ordaindu beharko zaio Udalarari, honela:

-%20 Andoingo Udalaren jabetzako mendien Hobekuntzako Fondoan.

-% 80 udal-kutxetan.

3. Emakidaren iraupena 2021ko urtarrilaren 1etik 2030ko abenduaren 31 arteko epealdia izango da, bi egunak barne. Ustiategiak ezingo du gainditu "Sociedad Financiera y Minera SA" sozietateari 1998ko azaroaren 5eko Gobernu Batzordearen akordioaren bidez emandako jarduerarako udal-lizentzian ezarritako muga-kota.

4. Erabaki hau enpresa esleipendunari jakinaraztea, eskatuz Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagunea lansailleko bulegoetan ager dadila 15 laneguneko epean, jakinarazpen hau jasotzen den egunetik kontaktzen hasita, kontratua administrazio-agirian formalizatzeko.

Esleipenari dagokion administrazio-kontratua sina dezan Alkateari ahalmena ematea. Dokumentu hori aurreko atalean esandako epean formalizatu behar izango da

5. Erabaki hau Kontratatzaileri Profilean argitaratzea, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 154 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

6. Erabaki hau Kontratatzaileri Profilean argitaratzea, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 154 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

7. Erabaki honen berri ematea Udal Kontuhartzailerari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari (Mendiak eta habitatak kudeatzeko zerbitzua).

8. Bide publikoan terrazak eta mahaiak jartzeko ordenantza arautzailea hasierako izaeraz onartzea.

Verdasco jaunak, PSE-EE udal taldeko eleduna eta Hirigintzako Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:



“El documento que traemos para aprobación inicial es un documento que viene trabajándose desde hace más de un año y medio, contando con la participación tanto de hosteleros, como ciudadanía y asociaciones. El objetivo de esta ordenanza es actualizar diferentes aspectos que ya recogía el documento anterior y regular nuevos elementos o casuísticas que el anterior no recogía. En caso de aprobación inicial por parte del Pleno se someterá a exposición pública durante un período de 30 días.”

Jarraian, Alvarez jaunak, EH Bildu udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Verdasco jaunak ondo esan duen bezala, duela urte eta erdi martxan jarritako ordenantza bat da hau, baina, urte eta erdi horretatik, urtebete daramagu pandemia egoeran.

“Pandemia egoera horrek ekarri duena da, besteak beste, ostalariak salbuespen egoera honetan lan egin ahal izateko, salbuespenezko neurri batzuk aplikatzea eta salbuespenezko arau batzuen baitan ari dira funtzionatzen. Esate baterako, pasa den ostiralean bertan, Andoingo taberna batzuei terrazak handitzeko baimena eman zitzaion.

“Guk, urte eta erdi honetan egin ditugu gure ekarpenak, batzuk onartuak izan dira eta besteak ez, baina, guretzako gakoa da ez dakigula Covid garai hau pasatzen denean zein erronka izango dituen ostalaritzak, nola lan egin ahal izango duten eta gure ustez, ordenantza hau egoera hori iritsi arte itxaron beharra du, zeren, bitartean salbuespeneko neurriekin jarraituko dugu, salbuespen egoera baten gaudenez eta horrek ez du uzten araua aplikatzea ostalaritzari gaur egun eta, gure ustez, salbuespen egoera hau amaitzen denean, balizko postCovid egoera horretan, dakigunean nola egongo diren tabernak, zein erronkak izango dituzten, orduan izango litzateke ordenantzari ekarpenak eta abar aztertzeko.

“Ez gara gu bakarrik hau esaten duguna, pasa den astean egon ginen ostalaritza mahaian eta ostalariek ere gauza bera zioten, guretzat ez da momentua eta ondorioz, guk, ezezkoa bozkatuko dugu.”

Jarraian, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Desde nuestro grupo estamos totalmente de acuerdo con lo que acaba de decir el Sr. Alvarez. Pensamos que no es el momento. Es verdad que se viene trabajando en ello desde hace año y medio, pero tampoco pasa nada por esperar un poco más a que acabe todo esto.

“No estamos cuestionando la normativa, para nada, estamos cuestionando que ya desde el mismo momento que se aplique, ya va a haber que aplicar una excepcionalidad, por lo cual creemos que no es de recibo aprobar una ordenanza que sabes que se va a incumplir de alguna manera.

“Pensamos que hasta que pase esta situación excepcional, no tiene sentido aprobar la normativa y que luego como bien ha dicho el Sr. Alvarez, esto también dejarlo claro, yo no estuve en la mesa de hostelería pero estuvo mi compañero y lo que me ha trasladado es que, tampoco era el sentir de los participantes de la mesa que se aprobara esto, pues, porque ahora lo que están diciendo están viviendo momentos de suspense en cuanto a su situación, entonces es mejor relajar un poco el tema, esperar a ver qué pasa y en consecuencia obrar cuando ya se salga de este tema. Nosotros nos vamos a abstener, no es que no parezca una mala normativa, ni buena, ni nada, solamente que ahora mismo no es el momento con esta excepcionalidad.”

Jarraian, Izagirre andreak, EAJ/PNVko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Gure aldetik, bakarrik esan, ulertzen dugula orain egoera berezi batean lanean ari direla, ez dakigu etorkizunean nola egin beharko duten lan, egoera berezi batean edo guztiz normaltasun batera iristeko gai izango garen, baino bai, ikusten dugu lehen zegoen araudi oso zaharkitua zegoela, ez ziola erantzunik ematen gaur egun ditugun eskaerei eta ditugun egoerei eta ulertzen dugu hau onartzea etorkizunari begira ona izan daitekela. Guk ez dugu inongo arazorik hau onartzeko, gero, etorkizun batean ikusten bada postCovid egoera hori baldintzatua izan behar duela, orain egiten ari garen bezala ere baldintzapen horiei erantzuna ematen saiatu gara eta aurrera egingo dugu.”

Berriro, Verdasco jaunak, hartu du hitza, honakoa esateko:



“Únicamente decir que una situación excepcional requiere aplicar medidas excepcionales. El tema es que no sabemos cuánto durará esa excepcionalidad y una vez que termine esa excepcionalidad, si habrá aspectos a retocar, actualizar o mejorar, al fin y al cabo, estamos hablando de documentos que son ordenanzas, documentos vivos que están en continua, porque así lo exige la sociedad, en continua evolución, en continua revisión. Sí que es cierto, como ha dicho la Sra. Izagirre, es un documento muy antiguo, obsoleto en el tiempo y que requerirá una actualización, como así lo han requerido los hosteleros y la ciudadanía.”

Berriro ere, Alvarez jaunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Zuek diozue, salbuespeneko egoera baten gaude, salbuespeneko neurriak ari gara aplikatzen eta gero, ez dakigu ze egoeratan izango garen baina, iruditzen zaigu ordenantza hau tresna egokia dela. Gure ustez, egoera berri horri erantzuna emango dion ordenantza behar dugu eta egoera berri hori zein den jakin gabe ezin dugu ordenantza bat onartu. Hori da gure iritzia.”

Ikusirik, Konstituzioko 140. artikulua udalerriei aitortzen dien autonomiaren oinarriaren gainean, Toki Jardunbideko Oinarri buruzko apirilaren 2-ko 7/1985 Legeko 4.1.a) artikulua udalerriei bere burua antolatzeko ahalmena aitortzen diela.

Ikusirik, 2021.02.12ko datan Hirigintzako Administrazio Orokorreko Teknikariak emandako txostena.

Ikusirik, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune Batzorde Irizpenemaileak 2021eko otsailaren 18an emandako irizpena.

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, EH Bildu udal taldeko zinegotzien kontrako botoekin eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotziaren abstentzioarekin, honakoa erabaki du:

1. Onestea, hasierako izaeraz, *Bide publikoan terrazak eta mahaiak jartzeko udal ordenantza arautzailea*.
2. Administrazio-espedita jendaurrean jartzea, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Andoingo Udaletxeko iragarki-taulan eta www.andoain.eus Udal web-orrian argitaratuz, **30 eguneko** epeaz, interesdunek espedita aztertu eta egoki iritzitako alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.
3. Espedita jendaurrean dagoen bitartean alegaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, aipatu araudia behin-betiko izaeraz onetsita geratuko da.

9. Andoainen bidaiarien hiri garraio zerbitzuaren esleipen-prezioa osatzeko proposamena.

Izagirre andreak, EAJ/PNV udal taldeko eleduna eta Zerbitzuetako Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Adierazi nizuen bezala, gai zerrendan zegoen eta horrela mantendu dugu, baino atzo adierazi nizuen bezala, bertan behera uzten dugu konsignazio faltagatik eta erantzuna eman bitartean arazoari.”

10.151/2021 zk.ko Alkatetzako Ebazpena berrestea.

Alkate andreak, 2021eko otsailaren 2ko, 151/2021 zenbakiko Alkatetzako ebazpenaren berri eman du, zeinaren bidez, A.N.A jaunari espedita zehatzailea irekitzea erabakitzen den, bere jabetako zakurra, 2020ko urriaren 17an kalean zaintzarik gabe utzia izan zelako, animalia jagon eta gordetzean behar den zuhurtasuna izan gabe.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak, 151/2021 zk. Alkatetzako Ebazpena berresteko proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, berretsi du.



11.191/2021 zk.ko Alkatetzako Ebazpena berrestea.

Alkate andreak, hitza hartu du eta honakoa esan du:

“Kasu honetan, 2020ko azaroaren 25ean egindako bileran 300 euroko jarri zuen.

“Decía que el Pleno de la Corporación en sesión celebrada el 25 de noviembre de 2020 impuso una multa por importe de 300 euros.

“Gaur ekartzen duguna da, pertsona horrek alegazioak aurkeztu zituen eta, alde horretik, begiratu da gaia eta kontutan izanda alegazio horiek ez zirela kontutan hartu, erabakia aldatzen da, arau hauste arin batera eta horren ondorioz, 30 euroko isuna jarriko genioke.

“Decía que esa persona presentó alegaciones y que, una vez revisadas las mismas, se ha determinado que la infracción pase a ser una infracción leve y, en consecuencia, se cambia el importe a 30 euros.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak, 191/2021 zk. Alkatetzako Ebazpena berresteko proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, berretsi du.

12. 231/2021 zk.ko Alkatetzako Ebazpena berrestea.

Alkate andreak, 2021eko otsailaren 16ko, 231/2021 zenbakiko Alkatetzako ebazpenaren berri eman du, zeinaren bidez, A.U.A andreak aurkeztutako alegazioak ezesten dira eta 30 euroko isuna jartzea onartzen da, Animaliak Edukitzeko eta Babesteko Udal Ordenantzaren 36.g) artikulua arau-hauste arin bezala tipifikatuta dagoen urraketa egin baitzuen 2020ko ekainaren 7an, Ordenantzaren 15. Artikuluan araututakoa ez betetzeagatik.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak, 231/2021 zk. Alkatetzako Ebazpena berresteko proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, berretsi du.

13.153/2021 zk.ko Alkatetzako Ebazpenaren berri ematea.

Alkate andreak, hitza hartu du eta honakoa esan du:

“Kasu honetan, Huitzi zinegotzi jauna inkorporatu ondoren, ebazpena etorriko litzateke. Lehenik eta behin, Andoingo udaleko Tokiko Gobernu Batzarreko kide izendatzea izango litzateke. Bigarrenik, 3. Alkateorde izendatzea eta hirugarrenik, Euskararen Normalkuntzarako udal batzorde irizpenemailearen Lehendakari eragilea Izagirre andrearengan indargabetzea eta laugarrenik, ENBA udal batzorde irizpenemailearen Lehendakari izendatzea.

“Decía que, como consecuencia de la incorporación del Concejal, D. Alex Huitzi, sería, la primera parte nombrarle como miembro de la Junta de Gobierno Local de este ayuntamiento. Segundo, nombrarle como Tercer Teniente de Alcalde. Tercero, dejar sin efecto la resolución por la cual se otorgaba la presidencia efectiva de la Comisión de Informativa de ENBA a Dña. María José Izagirre Iturzaeta y cuarto, como consecuencia de esto mismo, delegar dicha presidencia en D. Alexander Huitzi Alfonso.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak, 153/2021 zk. Alkatetzako Ebazpenaren berri eman du eta Osoko Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.

14. Hurria-Saharak aurkeztutako adierazpena.

Izagirre andreak, EAJ/PNVko eleduna, hartu du hitza eta mozioa irakurri du, honakoa diona:

“Bihar, otsailak 27, Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 45. urteurrena ospatzen da. Hain zuzen ere, Espainiak Mendebaldeko Sahara Morokori eta Mauritaniari



lotsagarriki entregatu eta lurralde utzi et hurrengo egunean, azken soldadu espainiarra erretiratu ondoren eta Espainiak Sahara herriarekin zituen erantzukizun etiko, politiko eta historikoak alde batera utziz eta horrek guztiak sortutako botere-hutsunearen aurrean, herri sahararrak Estatu berri baten oinarriak ezarri zituen, oraindik erbestean dagoena, Fronte Polisarioa, askapen nazionaleko mugimendu eta herriaren ordezkari legitimoa, buru duena.”

Jarrian, Verdasco jaunak, PSE-EE udal taldeko eledunak hartu du hitza, mozioa irakurtzen jarraitzeko:

“Con motivo de esta importante conmemoración, las personas aquí presentes y las que se han adherido a esta declaración, queremos manifestar nuestro profundo afecto hacia este pueblo hermano. Ahora más que nunca, necesita nuestro apoyo ante la grave situación que atraviesa, tras la declaración del estado de guerra, el pasado 13 de noviembre de 2020, a consecuencia de la violación del alto el fuego por parte del ejército marroquí en la brecha ilegal de Guerguerat.”

Jarraitzen da mozioa irakurriz eta oraingoan, Alvarez jaunak, EH Bilduko eledunak, hartu du hitza :

“Hala ere, Saharar herriak herri baketsua dela erakutsi du 1991tik, SEADeko gobernua 30 urte baino gehiagoz gatazka konpontzeko bide baketsuen aldeko apustua egin du, diplomazia maila gorenera hedatu du eta garaipenak lortu ditu planetaren luze-zabalean. 80 estatuk baino gehiagok onartu dute SEADA; Afrikako Batasunaren sortzaile eta kide da, eta nazioarteko erakundeek saharar herriaren autodeterminazio eskubidearen aldeko hainbat ebazpen onartu dituzte, besteak beste. Gainera, estatu bakar batek ere ez du onartzen Morokok Mendebaldeko Sahararen gainean duen subirotasuna, Trump presidente ohiak egin zuen trukea alde batera utzita, aitorten horrek ez lukelako lurraldearen estatusa ezertan aldatuko eta nazioarteko Zuzenbidea urratuko lukeelako. Horregatik espero dugu Estatu Batuetako Administrazio berriak adierazpen hori atzera botatzea, NBEk, Ebk, Afrikar Batasunak eta nazioarteko beste eragile garrantzitsu batzuek egindako adierazpenen ondoren.”

Jarraian, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, mozio irakurtzen jarraitzeko:

“Por eso no ha sido suficiente y Marruecos se ha seguido beneficiando del status quo. Desterrando a más de 200.000 saharauis a vivir en el exilio, en los Campamentos de Población Refugiada Saharai cerca de la ciudad argelina de Tinduf; sometiendo a un régimen militar a los y las saharauis que resisten a la ocupación del Sáhara Occidental, acosando y vulnerando sus derechos humanos sistemáticamente por el hecho de manifestarse y reclamar su derecho a la autoderterminación; saqueando y beneficiándose ilegalmente de los recursos naturales de los territorios ocupados con la complicidad de estados y multinacionales extranjeras; y ejerciendo un bloqueo informativo para evitar que conozcamos lo que está ocurriendo y nos lleguen las denuncias de los y las activistas de Derechos Humanos saharauis.

“Por eso, decimos y nos reafirmamos, en que esta guerra es una guerra impuesta al pueblo saharai, debido a la pasividad de la comunidad internacional y la irresponsabilidad del estado español.

Jarrian, Alkate andreak hartu du hitza eta mozioaren irakurketarekin jarraitu du:

“Horregatik guztiagatik, Andoingo udalak andoaindarrak gonbidatzen ditu Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zeneko 45. urteurrena ospatzera, Saharako bandera gure balkoietan zintzilikatuko dugu, 2021eko otsailaren 27an.

“Por todo ello, desde el movimiento de solidaridad con el pueblo saharai, invitamos a los/as andoaindarras a que se una a la conmemoración del 45 aniversario de la proclamación de la República Árabe Saharai Democrática mediante el gesto simbólico de colgar la bandera saharai en vuestros balcones el próximo 27 de febrero de 2021. Sahara askatu.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate andreak, adierazpen instituzionala onartzeko proposamena, bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, onartu du.

15.Martxoaren 8ko adierazpen instituzionala.

Alkate andreak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bizitza jasangarriaren alde, berdintasunean zainduta. Lehenik eta behin eta lehen komentatu dudana bezala, Romero andreak irakurri behar zuen, baina ez dagoenez Berdintasunaren sailaren aldetik, nik



irakurriko dut.

“Mugimendu feministak eta emakumeen eskubideen eta berdintasunaren aldeko erakundeek urteak daramatzate aldarrikatzen gizarteak eta erakunde publikoek egin dezatela eztabaida eta erabaki-hartze bat eskubide-berdintasunaren aldeko borrokan funtsezkoa den helburu batera bideratuta: emakumeek egiten duten zaintza-lana ikustaraztea eta balioestea.

“Erakundeek eta erkidegoak, bizi garen gizarteak alegia, ezin du alde batera utzi premiazko borroka etxe barruan emakumeen eta gizonen arteko zainketen erantzukidetasunaren alde, beti ere kontutan hartuta, baita lan horien arduradun eta onuradun gisa ere estatuak, enpresek eta pertsonak bere baitan biltzen dituzten erkidegoek duten eginkizuna.

“Zentzu horretan, ezin ditugu ahaztu XXI. Mendean gizarte heteropatriarkal honetan zaintzaile eta etxeko langile gisa lan egiten duten emakumeek dituzten baldintzak, batzuetan esklabotza beteak ukitzen dutenak, eta horrekin batera zer gizartetan bizi garen hausnartzea, eta baita ere zaintzaren jardunbide egokietan oinarritutako bidezko garapen-eredu iraunkor eta berdinzale berri bat eraikitzea, elkargune, harreman, zaintza eta emakumeek langile gisa dituzten eskubideen aldeko eremua, non duintasuna eta lan honen balorazioa lehenetsiko diren.

“Porque los cuidados son de todas las personas y para todas, porque son todas aquellas actividades orientadas a la reproducción social y a la regeneración de la vida, en otras palabras, gestar, parir, criar, alimentar, cocinar, sanar, acompañar, enseñar a caminar, gestionar el presupuesto del hogar, etc...el desarrollo de tareas que ocupan una parte importante de nuestro tiempo, afectando a distintos aspectos de nuestras vidas: familiar, laboral, social, personal, al tiempo de ocio, a la economía...en definitiva, son todas esas actividades que permiten que el mundo funcione. Porque hasta hoy al menos, el mundo lo seguimos poniendo en marcha todos los días las mujeres, casi solas.

“Kobidaren aldeko izurriteak biderkatu egin du mugimendu feministak adierazitako gizarte-eraldaketa horren garrantzia, aukera eta premia, pertsonen bizitza eta haien kalitatea erakunde, gizarte eta politika mailako eztabaidaren erdigunean jartzen baititu; izan ere, emakumeek egin duten zaintza-lana ia eutsiezinak diren mailetaraino handitu da osasun-krisiaren ondorioz etxeratu eta osasun neurriak ezarri diren bitartean.

“Lan gehiago egin dugu, lan bikoitza egin dugu, eta bi aldiz biderkatu dugu premia osoz gizonen, erakundeek eta gizarteak lagundu behar duten zaintza-lana. Emakumeek zaintza-lana. Emakumeek zaintza-lanetan duten erantzukidetasunaren zama larritu izana nabarmen honako hauetan ikusten da: osasun-lanaren eta funtsezko zerbitzuen zama gainezkatua, zaintza-lanen erantzukizuna, emakumeek pairatzen duten laneko pobrezia eta prekaritate handiagoa eta genero-indarkeriaren arriskua handitzea.

“El ayuntamiento de Andoain, en este 8 de marzo, comprometido con las políticas locales con enfoque feminista, entiende imprescindible abordar en nuestro municipio, y en nuestras políticas, de manera transversal y prioritaria la transformación del modelo de cuidados existente, y caminar hacia un modelo más sostenible para la vida con corresponsabilidad social y comunitaria en el cuidado. En ese sentido, aprueba tomar las siguientes medidas para ese objetivo:

“1.- Andoingo udalak, gainerako euskal udalen jarrera nagusiarekin bat etorritik, lehenetsunez jotzat jotzen du, bere erabaki-eremuaren barruan, zainketen gizarte antolamenduaren ereduari buruzko eztabaida sustatzea ikuspegi feministatik, bizitzaren zentraltasunean eta zaintzan gizarte eta erkidego erantzukidetasunean oinarrituta.

2.- Con ese objetivo, el ayuntamiento impulsará un diagnóstico sobre la situación de los cuidados en Andoain, en orden a una toma de decisiones conforme a los principios que hemos señalado y a la situación, demandas y necesidades que determine el análisis realizado de nuestro pueblo. A partir de las conclusiones recogidas en este diagnóstico previo, el ayuntamiento de Andoain estudiará las acciones a implementar y las adaptará a los servicios existentes y cerrará, si así se ve necesario, nuevos servicios y recursos a corto plazo, como adecuar los servicios a la lucha contra la violencia de género u otras posibles necesidades, para dar una adecuada respuesta a las conclusiones o acciones identificadas en dicho diagnóstico.

3.- Andoingo udala Udala Berdintasun Planean esku hartzearen aldekoa da, emakumeen



ahalduntzearen aldeko prozesuak eta jarduerak indartzeko, zainketen erantzunkidetasuneko prozesuetan gizonen gizarteratze eta ikaskuntzarako ekintzat balioesteko.

4.- Asegurar que la Escuela de Empoderamiento cuente con los recursos necesarios, teniendo en cuenta el cuidado, para que todos puedan participar en acciones de empoderamiento individual y colectivo.

5.- Helburu berarekin, Berdintasun Planeko ekintzetan sakonduko dugu, tokiko zaintzarako sare erkidetuei laguntzeko eta tokiko politiketan berdintasun-politikak eta genero-zeharkakotasuna garatzeko langileak eta baliabide tekniko eta ekonomikoak indar ditzagun.”

“Por último, este ayuntamiento hace un llamamiento a la ciudadanía para que participe activamente en las movilizaciones y en las actividades convocadas en torno al 8 de marzo por el ayuntamiento junto con las asociaciones de mujeres y el Movimiento Feminista de Andoain, con motivo del Día Internacional de las Mujeres.”

Jarraian, Alkate andreak, Martxoak 8ko adierazpen instituzionala onartzeko proposamena, bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, onartu du.

16. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Ez dira izan.

Bukatzeko, Alkate andreak, hartu du hitza eta honakoa esan du: “Azken hilabete hauetan esaten ari garen bezala, andoaindarrei arduraz jokatzeko eta indarrean neurri guztiak betetzea eskatzen diegu.

“Decíamos que damos por finalizado el pleno de hoy, pero no sin antes insistir, como lo estamos haciendo en los últimos meses, en un mensaje de responsabilidad individual a la ciudadanía para que sigamos cumpliendo correctamente las medidas del Covid y en ese sentido pedimos que se cumplan todas las medidas que haya y que sigamos actuando todos con responsabilidad. Mila esker. Gracias.”

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, 19:35 minutu zirenean. Behin-behineko idazkariak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorri Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, Behin-behineko idazkaria naizen honek, ematen dut.

O.E.

Alkatea

Behin-behineko idazkaria

